

# Goñerrin aurkitutako testuak (VII)

FRANTZISKO ONDARRA\*

**A**ldizkari honetan emanak ditugu argitara Goñerrin aurkitutako zenbait testu (ik. *FLV*, 53. zenb. (1989), 97-144; 55 (1990), 73-121; 57 (1991), 131-168; 60 (1992), 297-333; 62 (1993), 137-153; 67 (1994), 521-554. Haiekin batean bilduma bat osatzen duen beste bat eskaintzen dugu orain, bertan 8. saila egiten duela (ik. *Euskera* XXVI (1981-1), 354. or., eta XXVI (1981-2), 646. or.).

## TESTUAK

Bilduma horretako bat ez beste testu guziak bezala, oraingo hau ere predikua da, eta sei orriko –estalkiko bi orriak barne– paper multzo batean dago idatzia. Hari zuriz daude josiak orriak eta beren neurriak hauek dira: c. 213 mm. luze eta 155 zabal. Ur markak honela dira:

1. I FARGUES (sic - *U*) / NAUARRE (sic - *U*).
2. Hiru zirkulu bata bestearren gainean, goikoaren gainean gurutze bat eta gorago koroa antzeko irudia liliori eta guzti. Zirkuluen ezker eta eskuin esku antzeko irudiak eta ezkerrean FIN ta eskuinean 1758.
3. Adierazi berria dugun irudiaren antzeko bat, goiko zatia ez dela berdin-berdina eta urtea ezin dugula ongi ikusi. Goiko zirkulu barruan bihotza marrazturik.

\* Euskaltzaindia.

## NORK, NOIZ ETA NON

Egile bera dutela uste dugu testu honek eta “Goñerrin aurkitutako testuak (VI)” lanean ezagutzera eman genituenek: idazkera bera ikusten dugu, laburpenak edukiz eta formaz berdinak, etab. Baino oraingoak, beste haiiek ez bezala, baditu bazterrak ezker eta eskuin, hasieran erdara darabil tituluadierazteko, estalkia dauka, josirik ditu orriak, laburpenak urriago dira, euskara ez du berdina. Hala ere, egile bera dute edo izan dezakete, zenbait urteten tartea dagoela horien artean. Bestalde, Nafarroako herriren batean predikatzeko izan zen egina, bertako euskara erabiltzen baitu.

## HIZKUNTZAREN INGURUAN

### Grafia

*Bokaletan*, *v-* idatzi ohi du hitz hasieran *u*-ren ordez; “*vrre*” 3, 2.

*Kontsonanteetan*, zenbait aldiz *-ti-* ipintzen du, *-zi-* adierazteko: “*intentionequi*” 2, “*astutie*” 5, 1, eta bi aldiz *c* aurkitu dugu *z* adierazteko” “*estuu*” 2, “*eracusiziquio*” 6, 2.

Laburpenak bai edukiz eta bai formaz goian aipatu dugun laneko testuetan ikusten ditugunekin berdinak dira.

### Fonetika

*Bokaletan*, askotan *ai* diptongoa *ei* bilakaturik dago: “*Eingueruec*” 2, “*zeituste*” 2; eta *a(i)ña*, *añ* eta *ña* ageri dira *e(i)ñe*, *eñ* eta *ñe* bilakaturik: “*beñe*” 3, 2, “*desengueiñetu*” 4, 2, “*beño*” 5, 1, “*bañe*” 4, 2; *eu au*bihurturik: “*daus*” 6, 1, “*zaure*” 2; *ia* eta *ua* azkenik *ie* eta *ue* egunik ia beti, salbuespen bakanen bat ageri dela: “*arime*” 1, “*iolen*” 2, “*andie*” 5, 1, “*burue*” 7, 2, “*usecen*” 4, 2. Bestalde, bokal Elisioa ageri da zenbait hitzetan: “*atraco*” 3, “*intresac*” 3, 2, “*oberna*” 7, 2, kontuan hartu gabe *berla* eta *orla* antzekoak.

*Kontsonanteetan*, hitz amaieran *-s* de beti: “*milagros*”, 3, 1. Fonetika sintaktikoaren arloan ere ematen da gertakaririk, eta besteak beste hau ikusten dugu: *ez* partikula eta adizki baten hasierako *d-* kontsonantea beti *est* bihurturik ikusi dugu, adibidez, “*esta*” 4, 2, “*estela*” 5, 1; eta *ez + z-* gehienetan *esz* egunik, adibidez, “*eszue*” 3, 2, ematen direla ere *ezz* eta *ez*, adibidez, “*ezzuela*” 7, 2, eta “*ezela*” 5, 1.

### Morfologia

*Deklinabidea*. Ergatibo plurala *-ek* da: “*becatorec*” 4, 2; datibo plurala *-egi*: “*beregui*” ‘sibimetipsis’ 4, 2; soziatiboa *-ki*: “*gulerequi*” 1; destinatiboa *-dako*: “*becatorendaco*” 4, 2; ablatiboa *-ganic*: “*demonioaganic*” 5, 2.

*Erakusleak* hauek dira: *au, onek, ontan, onen, abek eta ebek; ori, (ortik); ore -ik. Hiztegia-*.

Izenordain pertsonalak honela dira: *ni, neuronek, ene; zeure, zaure; gu, guk, gure; zuen, zaurok, zauren, zeuren.*

*Aditza.* Iraganaldian beti galtzen da bukaerako *-n* kontsonantea: *nindue, ze, zebille, zue, geroaldia tajutzeko -en erabiltzen da -n bukaeradun aditzetan: emanen, emein, erranen, iquenen; partizipoko -tu atzizkia galtzen da inperatibo eta subjuntiboan gehienetan, baina potentzialean behin bakarrik aurkitu dugu: “servizezaze” 8, “tentazean” 1; “comparadeitequenic” 5, 1. Ik. ere “icuscegun” 6, 2, baina “egozizezan” 2. Subjuntiboan zenbait aldiz *-agatik* eransten zaio aditz laguntzaileari: “adoracezan *agatic*” 3, 2, “desbanecitudie-*agatic*” 2.*

### Sintaxia

Aurki ahal izan ditugu fenomeno hauek: genitiboa atzetik: “Erregue Es-pañecod” 7, 2; deklinabideko marka errepikaturik: “Christoc gure Erredento-reac” 2; eta honako egitura hau: *ayec guciec* 6, 2, *ebec gucioc* 3, 2, *gauzabec gucioc* 3, 2, *riquezayec guciec* 7, 1.

### Hiztegia

Larramendiren hitzik ez dago. Hemen aipatzen ditugun berbak oso eza-gun diren hitzen aldaera eta sinonimoak besterik ez dira. Hona: *aniz, aurre-an, bekatore, bekela/bezela, eramo, geago, egin/in, iken ‘izan’, oian ‘mendi’, ore ‘hura’.*

### Adizkitegia

Jakingarri izan daitezke aditz laguntzailea eta beste osagai bat nahasita sortzen diren formak: *barime* ‘bal(d)in ba’, *bauze* ‘baduzue’, *nauze* ‘nahi duzue’, *beairzet* ‘behar dizet’, *beaurc* ‘behar duk’. Hika mintzatzen zaio demonioa neskato bati: “errancio guezurrecion eze ni *naun* demonioa, eta neuronec errannine ezzuela cer juan erregueren cortera ece joaten *beinze* galduco *incela*” 7, 2; eta Jesus dominioari: “*Goye* nora mala Satanas. Jangoicoa sollic serbizetuco *duc*, eta adoratuco *duc*” 4, 1. Ez dugu ahaztu nahi *lizequen* ‘balitz’ esan nahi duena: “bada cebille orduen demonioa... mundu gucien Jabe *lizequen* bezela” 5, 1. Ik. ere *zeikio* ‘zitzaison’ 1.

## GURE LANA

Orrialdeak zenbatu gabe zeuden. Hitz laburtuak deslaburtu egiten ditugu eta guk sartu hizkiak kortxete barruan ematen, baina latinezkoetan ez dugu kortxeterik erabiltzen. Azpimarratu gabe zegoen latinezko pasarteren

bat azpimarratu egin dugu eta latinezkoetan ageri diren okerrak zuzendu eta orrialde peko oharretako batean zuzenketa guzien berri ematen dugu.

*Hiztegia* atalean ez ditugu sartu hitz guziak, *Adizkitegia* atalean ordea adizki denak sartzen ahalegindu gara.

*Laburdurak*: a. aditza, ad. adberbioa, adj. adjetiboa, au. aurritzka, d. determinatzailea, gazt. gaztelaniaz, i. izena, ik. ikus, ing. inglesez, io. izenordaina, j. juntagailua, lat. latinez, p. posposizioa.



## PLATICA PARA LA DOMINICA PRIMERA DE QUARESMA.

[1]



DOMINGO PRIMERO DE QUARESMA EVANGELIUM MATH. 4

TUNC DUCTUS EST JESUS<sup>2</sup> A SPIRITU IN DESERTUM, UT  
TENTARETUR A DIABOLO. MATH. 4.<sup>o</sup>

Evangeliste S[a]n Matheoc errat[e]ndigu egungo Evangelio s[a]nduen, ece Jesu [Chris]to gure erredemtoreac errecebbitu orduco bautismo s[a]ndue S[a]n Ju[an] Bautistaren escutic Jordan cerizon vgaldebatean berla guietzuela Spiritu S[a]nduec desertoatera, t[e]ntacezan an demonioac. tentatzue bada demonioac [Chris]to gure erredentorea iru aldis. Cego [Chris]to gure erredemtorea, berroguei egunes, eta berroguei gaves barutu ondoan goseac<sup>3</sup>, deserto art[an] eta aparecitu ceiquio demonioa, eta t[e]ntazue gulerequi, errat[e]n ciola: *si filius Dei es, dic ut lapides isti panes fiant.* Jan Goicoaren<sup>4</sup> semea barime zara, erranzazu arriebec converti deizela oguien. Naizue demonioac, nola beizego [Chris]to gure Erredemtorea, eimb[e]rce egunes eta gaves barutu ondoan gosseac, ssancezan bear baño gueago, eta inzezan becatu; baña garaytuzue demonioa [Chris]to gure Erredemtoreac erresp[ue]sta onequi: *non in solo pane vivit homo;* esta guizona oguierequi sollic bici: *sed in omni verbo, quos procedit de ore Dei.* beizic Jan Goicoaren izerequi, eta doctrinerequi<sup>5</sup> bizide arime, eta aniz aldis gorpuze ere bai, bada Es[critu]ra S[a]nduec errat[e]ndigu, Moyses egonzela berroguei egunes ssan, eta edan bague<sup>6</sup>, eta mantenatu zuela bere arime; eta gorpuze ere bai Jan goicoan izearequi, eta doctrinarequi. [2] Garaituric demonioa t[e]ntacioontan acometitucio berze batequi; lendabissicoa iquenze gulerequi eta bigarrena soberbiee-

1. Estalkian gurutzea eta titulua.
2. E “Jesus”. Latinezko okerrak: “mitē” 2; “nūis” 2; “hēc” 3, 2; “adoraberis” 3, 2; “arrogācia” 3, 2; “mitē” 6, 2; “hēc” 6, 2.
3. Pixka bat beherago “gosseac”.
4. Laburtu gabe eta bi hitz eginik.
5. Esango genuke lehenbizi “doctrinarequi” idatzi duela. Ik. orrialde bukaeran “doctrinarequi”.
6. Lehenbizi “gavea”. Ik. 10. oharra.

requi<sup>7</sup>, bada aparezitu ceiquio guizon deboto, eta piadosoaten figur[en], demonioa Jesu [Chris]to gure Erredentoreari Jerusalengo Elizabatean, eta eramozue<sup>8</sup> lecu altoatera eta errancio: *si filius Dei es, mitte te deorsum*. Jangoicoaren semea barimezara egoizezu ortic zaure buruori, eta estuzu miñic artuco, cerengatic atraco daquizquizu Eingueruec, airean artuco zeituste, eta guardatuco zeituste miñic arzetic, Jangoicoac manaturic dauzquien becuela<sup>9</sup>: *quia Angelis suis mandavit de te: et in manibus suis tollent te*. eta cer vste duze pret[e]ndizenzuela demonioac t[e]ntacioontan? Pretendizenzue [Chris]to gure Erred[en]toreac egoizezan altoartatic bere burue, eta gueldizedien miñic artu gabe<sup>10</sup>, alaba zezaten, icust[e]n zuten gendec sandue bequaleta desbanecitu zedienagatic, edo ensoberbecitu zedienagatic [Chris]to gure Erred[en]toreea: int[e]ntionequi t[e]ntatu zue demonioac sob[e]rbierequi bigarr[en] aldien. Beñe t[e]ntaciont[an] erresp[o]ndatucio [Chris]toc gure Erred[en]n[toreac] b[e]rre ex[critu]re sagratuco testoatequi: *scriptum est: non tentabis Dominum Deum tuum*. esc[ritu]ra sagratuec errat[e]ndu: estu-cu<sup>11</sup> t[e]ntatuco zaure Jaun eta Jangoicoa: emancio ent[e]ndazera demonioari, ece zoizquielaric escalerac cheisteco lecu alto, edo goitiartatic, egocizea bere burue eingeruec<sup>12</sup> eirean arrepatuco zutelaco desseoarequi, cela Jan Goycoa t[e]ntacea. Eta ocasionequi errat[e]ndigu guri guciogui S[a]n Agustin gloriosoac: *Pertinet ad sanam doctrinam, ut quando habet, quid<sup>13</sup> faciat homo*, [3] *non tentet Dominum Deum suum*. Doctrine sanoa da: ez escacea Jangoicoari milagroric, gauren necesidadet[an], erremedietu alzazquigune[an] gaur[en] industrierequi, eta gaur[en] partetic aleguiñe itearequi; bada balego bat gaizqui, eta ezpalezaq[ue] artu medizineric, eta pretenditu balezaq[ue] curecea gaizartatic, milagros, erremedioric imbague, iquenenlizaque tentacea Jaincoa.

Garaituzue [Chris]to gure Erred[en]toreac demonioa bigarren tentaciont[an], beñe organic eszue desistitu bere empeñotic, bada da demonioa choil porfietu bere t[e]ntacio gueistuet[an]. t[e]ntazue iruguerren aldien, eta artaco eramo zue cristo<sup>14</sup> gure erred[en]torea oyan alture anditecoatera<sup>15</sup>, eta andic eracusi zizquio munduco Errenu<sup>16</sup> guciec, edo gueyenac, eta err[an]cio, ea, an dauzquizu Indie, an dauquezu Inglaterra, an Espane, an Francie, eta b[e]rre errenu guciec, *et gloriam illorum* eta Erreiñuetaco glorie gacie, cein baitire vrre, ciller, eta gueñeraco riqueza guciec, ebèc dire munduonequi

7. E pariturik: *soberbie erequi*.

8. E “-zu”.

9. Hemen “becuela” eta pixka bat beherago “bequela”. “Bequela” eta “bezela” erabili ohi ditu.

10. Lehendabizi “*bague*”. Ik. 6. oharra.

11. Esango genuke lehenbizi “estue” ipini duela eta gero *u* erantsi. Ik. *duc* 4. orrialdeko 1. paragrafoan.

12. Ik. “Eingueruec” orrialdeko honetan, gorago.

13. Beharbada “*quod*” irakurri behar da.

14. Horrela: “*cristo*”, minuskulaz eta *-h-* gabe.

15. Autoreak gero erantsia *-te-* silaba.

16. Hemen “Errenu” eta beherago berriz ere “errenu” eta “Erreiñu”.

isuturic daudenen glorie; vrrea, cillerra, eta b[e]rre intresac<sup>17</sup>; eta gauzabec gucioc eracusi ondoan errancio demonioac, [Chris]to gure Erred[e]ntoreari; *haec omnia tibi dabo, si cadens adoraveris me.* ebec gucioc emeindizquizut, cheisten bazara ene oñetara, eta adoracen banazu. *haec de arrogantia dicit.* auguciau erranzue demonioac sob[e]rvies, eta arrog[a]ncies beteric, cergatic demonioa esce munduon[en] Jabe ofrecituceco<sup>18</sup> [Chris]to gure Erred[e]ntoreari. beñe sob[e]rvies beteric, adoracezanagatic ofrecitucio mundu gucie [Chris]to gure Erred[e]ntoreari, berea iq[ue]ñbague; [4] eta [Chris]to gure Erred[e]n[torea]c ez sufriceagatic, eimb[e]rre atrebim[e]ntu, eta sob[e]rvie demonioari, egocizue nora mala, eta erresp[o]ndatucio: *Vade retro Satana.* Goye nora mala Satanas. Jangoicoa sollic serbisetuco duc, eta adoratuco duc. *Dominum Deum tuum adorabis, et illi soli servies.* em[en] eracusten digu [Chris]to gure Erred[e]n[torea]c eze zufritu beartugule gaurogui itendaquizquigun agrabioac, beñe ez Jangoicoari iten daquizquionac: au de egungo evangelioac errat[e]ndigune, eta azertaceco evangeliöco doctrine escazogun Maria S[antissima]ri. asistizegule bere gracierequi. *Ave Maria.*

DUCTUS EST JESUS IN DESERTUM &<sup>a</sup>  
NOLUNT CULPAE SUAE TRIBUERE CULPAM SUAM AUG. IN  
PSALM.7.<sup>m</sup>

Esta becatoren erte[an] gauze comunegoric, eta iago vsecendenic nola egocicea ber[en] becatu[en] culpec demonioari, escuseceagatic ber[en] buruec. Estute nai becatorec egoci beren becatuen culpe beregui. dio S[a]n Agustin gloriosoac *nolunt culpae suae tribuere culpam suam.* eta au de itsutsun andibet becatorendaco<sup>19</sup>, eta ez embarazo chique arrep[e]nticeco deberas becatoreac. Au de embarazo andibet billezeco becatorec ber[en] erremedioa. Egungo egune[an] christio fielac desengueñetu bearzeistet, eta beairzet<sup>20</sup> paratu [con]sideracioan, ecce becatu it[e]nduenac, berac duela culpe, eta ez demonioac; bada dio S[a]n Ag[u]s[tine]c ece demonioa dela catibatequi loturic dagona chacurre bezela, eta argatic aunquie inzequela, bene ezzaquela ozcaric in, beicic bere borondates arrimecen zeyonari sollic: *latrare potest mordere autem non potest nisi volentem bañe err[an]zaqueze,* ece demonio[an] podorea [5] eta astucie dela choil andie, eta aimb[e]rre, eta estela m[un]du[en] podoreric, eta inderric demonio[an] podorearequi, eta arren fuerzequi [com]paradeitequenic. Job Patriarcha S[a]nduarrec erranzum<sup>21</sup> bequela. *Non est super terram potestas, quae comparetur ei.* Eguie da, christio fiela, Job Pa[triarc]ha S[a]nduarrec err[an]zue: estela munduen fuerzaric, eta podoreric demonioareq[ui] [com]paradeitequenic, eta ongi zequienac be-

17. Horrela irakurtzen dugu: *-tr-*, ez baitugu uste hitza laburturik dagoenik.

18. Horrela: “ofrecituceco”.

19. E bi zatitan: *becatoren daco.*

20. Horrela: *beairzet*, ‘behar dizuet’ adierazteko.

21. Horrela: “-zum”, ‘zuen’ adierazteko.

quela err[an]zue, bara<sup>22</sup> p[u]rgatuzue berac asqui. beñe noiz err[an]zue Jobec, christio fielac? Jobec expliquetuzue demonio[an] astutie, eta podorea [Chris]to gure Erred[e]mtorea m[un]dure eterri beño leen, eta eguiie err[an]zue ordu[en] Jobec, ece ezela<sup>23</sup> ayn andie orduen, edo demborart[an] demonio[an] astucie, eta podorea, ece escela arquicen munduen norequi igualatu, bada cebille orduen demonioa libre, eta suelto munduko Principe, soberano bezela, eta m[un]du guci[en] Jabe lizequen bezela. bañe ora[in]<sup>24</sup>? [Chris]to gure Erred[e]ntorea mundure eterri esqueros, ya dago demonioa errendituric, humilleturic, abatituric, eta catega batequi loturic.

Espiritu S[a]nduec quietuzue [Chris]to gure Erred[e]ntorea desiertora: badaquize certara? deabruiec t[e]ntacera, erranenduze. *ut tentaretur a diabolo.* bai eguiie da: deabruiec t[e]ntacera quietuzue, Beñe cetaco vste duze p[e]rmititu ceizquiola, [Chris]to gure Erred[e]n[torea]c demonioari t[e]ntacio ayec? P[e]rmititu cizquio dio S[a]n Gregorioc, Christor[en] t[e]ntacioequi, eta vitorieq[ui] garaitu guenzaguenagatic guc demonioa, gauren t[e]ntacioet[an]; eta logratu guenzaguenagatic aniz vitorie demonioaganic: *ut sic temptationes nostras, suis temptationibus vincere*<sup>25</sup>. Ea christio fielac animezeiste<sup>26</sup>, eta peleazaiste valore andiereq[ui] demonioa zaur[en] enimigoar[en]<sup>27</sup> [con]tra, bada da choil cobardea, eta pendejoa, eta estauq[ue] batere indarric.

Aizeze nola [con]fesacenduen berac. aparecituceiquio ocasioates demonioa S[a]n Antonio [6] Abad Gloriosoari, eta inzizquio queja andiec<sup>28</sup> sandu gloriosoarre[en] discipuloen, eta c[hris]tio guci[en] [con]tra, eze becatu iten zut[en] aldioro egost[en]cicen<sup>29</sup> dizquitotela aniz maldicio diabrueren [con]tra, eta errat[en]dutela. Malditoa iq[ue]ndadiela diabruue diabruiec du culpenic becatu itea, eta, offendicea Jangoy[coa]. eta estauq[ue]te sobra arracio? S[a]ndu Gloriosoarrec. O Antonio Antonio! erresp[o]ndatucio demonioac ssaq[ui]n beaurc, eze zuen Erred[e]ntoreac vzininduela batere indarric gave, eszaquet daus ere eguin, naiz miserable bat, eta desdichetuet: f[ue]rtequi egozinazaq[ue]ze neibauze. Cer nauze gueago christio fielac? nola [con]fescea demonioac bere agos vere flaqueza.

David Profetac oguei, eta amargarr[en] salmo[an] errat[en]digu: obrazaze valore andiereq[ui] [con]fortazazquize zaur[en] viozac eta animezaiste: *viriliter agite, et confortetur cor vestrum:* eta S[a]n Geronomoc emat[e]ndigu motivoa. *quia debilis est hostis, non potest vincere, nisi volentem.* Cer[en]gatic zu[en] enemigoa, da inutille, eta flacoa, eta eszaq[ue] gareitu, bere borondates gareicera vst[e]ndiona ece b[e]rceric. eta b[e]rcela discurrizegun, eta icuscegun nola t[e]ntatuzu[en] egun<sup>30</sup> [Chris]to gure Red[e]m[to]rea demonio-

22. “Bada”-ren aldaera.

23. Hemen “ezela” eta hamaika bat hitz beherago “escela”.

24. Laburduraren arabera “orain” irakurtzen dugu.

25. Bazterrean *S[an]ctus Gregorius*. Bestalde, guk azpimarratua da latinezko aipamena.

26. Hemen “-zeiste” eta hiru bat hitz beherago “zaiste”.

27. Hurrengo orrialdeko 2. paragrafoan “enemigoa”.

28. E “andie”, bukaerako -c gabe.

29. Sobera dago -cicen, gure ustez.

30. Laburduraren arabera “eguen” irakurri behar genuke.

ac, cergatic moduartan bere[an] t[e]ntazengaytu gu ere beti. lendabissicoan paratu zizquio arribezuc aurre[an], eta err[an]cio. *si filius Dei es & a Jangoy-coar[en] semea barimezara: err[a]nzazu arriebec [con]vertideyzela oguien.* eguincio acaso fuerzaric t[e]ntaciont[an]? ez por cierto dio S[a]n Ju[an] Chris[ostomoc]. Bigarr[en] t[e]nta[ci]o[an] eramozue Elizeco paraje goytibetra eta err[an]cio: *mitte te deorsum: egoizezu zaure burori ortic. em[an]cio bulquezonembat?* ez zaq[ue] dio S[a]n Ger[o]n[imoc] *persuadere potest prae-cipitare non potest.* P[e]rsuadituzeq[ue] aconsejatuceq[ue] bañe ez zaq[ue] fuerzaric eguin. Irugarr[en] t[e]nta[ci]o[an] eracusizicquio oy[an] altoatetic munduco grandeza guciec; eta err[an]cio [Chri]sto gure Err[edentorea]ri: ayec guciec eman[en]cizquiola ssarrizem baze arr[en] oñet[an], eta adoracen bazue: *haec omnia tibi dabo &.*<sup>a</sup> eta eguincio em[en] fuerzaric? ez por cierto antes modu andierequi errancio [7] nei bezue adoratu eman[en]zizquiola riquezayec guciec. Ea estuze icusi nola demonioac bere t[e]nta[ci]o[an]<sup>31</sup> guciet[an] ezaq[ue]n bereric eguin, beicic t[e]ntatu, incitetu, proponitu eta errepresentatu? cer beardu<sup>32)</sup> Beñe acaso vecaturic eguaracizoque nay es-tuenari? cer beardu inaraci, es zaq[ue] ezparimedua nei vecatoreac berac. Bada argatic vecatorea zarela Guizona, edo Andrea of[e]ndizenduzune[an] Jangoy-coa, estuzu of[e]ndicen demonioan t[e]nta[ci]o[an] medios sollic, beicic ceure vorondate gueistoar[en] medios, t[e]ntacio gaistoa [con]s[e]nticeare-qui.

Erregue Españecoa vizizen cene[an] Valladolid darizon ciudad[e]an], nescato gastebat cidoie Erreguerem [co]rtera, an vere vicia obequi atraco zuela-co int[e]ncioarequi errichiqui batetic. en[con]tratuze vide[an] Guizon bate-q[ui], eta galdeincio guizonarrec, nora zidoyer, eta errespondatucio nescato gastearec Erregueren [cor]tera cidoyela, errancio guizonarrec ez zuela cer joan, eze joaten baze galducozela, beñe escio casoric eguin nescatoarrec, eta joanze erreguer[en] cortera. eta an d[e]mbora<sup>33</sup> labur galduzue Jangoicoar[en] gracie, eta bere gorpuceco prendaric oberna<sup>34</sup>, eta icusi zuene[an] bere burue embarazaturic elduze bere Errire alquegorrituric. encontratuzue bide-art[an], eta parajeart[an] bere[an] Guizonore, eta assiceiquio cargu item, cerengatic eszuen iñ arrec errana, beñe nescatoore, escuseceagatic bere burue assize demonioari culpen egocicen, eta errancio: demonioac du culpe ni orla egotea bada t[en]tatu nindue, ein fuerte becature, ece garaytu nindue, eta orduen Guizona cirudielaco arrec em[an]cio errebesbat, eta err[an]cio guezurredion eze ni naun demonioa, eta neuronec err[an]nine ezzuela<sup>35</sup> cer joan erregueren [cor]tera ece joaten beinze galduco incela; eta alare [8] christio fielac egozico dizquioze demonioari zauren becatuen culpec? ssaquincece bada emendic aurrera zauroc duzela zaur[en] becatuen culpe eta ez demo-nioac, eta procurazaze garbizea zeuren arimec becatu[en] manchetatic

31. “Tentaciota” behar luke.

32. Bukatu gabe utzi duen esaldi hau gero osatzen du: *cer beardu inaraci...*

33. Lehenbizi “de[m]pora”.

34. Horrela irakurtzen dugu, ez baitugu uste laburturik dagoenik.

35. ‘Ez huela’ esan nahi du.

[con]fesio ombaten medios, eta servizezaze Jangoicoa obequi em[en]dic au-rrera, neibauze logratu Jaun divinoar[en] gracie, eta glorie.

## HIZTEGIA

## A

ABATITU (a.) 'apaldu, lurreratu'. ya dago demonioa errendituric, humilleturic, *abatiturič* 5, 1.

ABEK (d.) 'hauek'. *gauzabec* 3, 2.

ADORATU (a.) 'gurtu'. *adoratu* 7, 1.

AGO (i.) 'aho'. *bere agos* 6, 1.

AIEK (d.) 'haiet'. *ayec guciec* 6, 2; *riuezayec* 7, 1; *Erreiñueietaco* 3, 2.

AIN (ad.) 'hain'. *ayn andie...* ece 5, 1; *ein fuerte...* ece 7, 2.

AINBERZE (d.) 'hainbeste'. *aimb[e]rze* 5, 1; *eimberze* egunes 1.

AIRE (i.) 'aer' lat. *airean* artuco zeituste 2; *eirean* 2.

AITU (a.) 'entzun, aditu'. *Aizeze* 5, 3.

AKOMETITU (a.) 'eraso'. *acometitucio* 2.

AKONSEJATU (a.) 'aholkatu'. *aconsejatuceq[ue]* 6, 2.

AL (i.) 'ahalmen'. erremedietu *ahazquigune[an]* 3, 1.

ALABATU (a.) 'goretsi'. *alaba* zezaten 2.

ALARE (ad.) 'hala ere'. eta *alare* 7, 2.

ALDI (i.) 'bider'. iru *aldis* 1; aniz *aldis* 1; bigarr[en] *aldien* 'bigarren aldiz' 2.

ALDIORO (ad.) 'beti'. becatu iten zut[en] *aldioro* 6, 1.

ALEGIN (i.) 'ahalegin'. *aleguíñe* itarequi 3, 1.

ALKEGORRITU (a.) 'biziki ahalketu'. *alquegorrituric* 7, 2.

AMARGARREN (d.) 'hamargarren'. oguei, eta *amargarr[en]* salmo[an] 6, 2.

AN (ad.) 'han'. *an* 7, 2; *andic* 3, 2.

ANDI (adj.) 'handi'. alture *anditecoatera* 3, 2; andi 4, 2.

ANDRE (i.) 'emakume'. Guizona, edo *Andrea* 7, 1.

ANIMETU (a.) 'bihotz-berotu'. *animezaiste* 6, 2.

ANIZ (d.) 'asko'. *aniz aldis* 1; *aniz victorie* 5, 2.

APAREZITU (a.) 'agertu'. *aparecitu* ceiquio 1.

ARAIZI (a.) 'erazi, erazo'. *eguinaraci* 7, 1; *inaraci* 7, 1.

ARGATIK (ad.) 'horregatik'. eta *argatic* 4, 2.

ARIME (i.) 'arima, gogo'. *arime* 1.

ARKITU (a.) 'aurkitu, kausitu'. *arquicen* 5, 1.

ARRAZIO (i.) 'arra佐oi, argumentu'. estauq[ue]te sobra *arracio* 6, 1.

ARREK (d.) 'hark'. *arrec* 7, 2; *art[an]* 1; *artaco* 3, 2; *arr[en]* 6, 2.

ARREPATU (a.) 'hartu, eutsi'. eingeruec eirean *arrepatuco* zutelaco 2.

ARREPENTITU (a.) 'damutu'. *arrep[e]nticeco* 4, 2.

ARRI (i.) 'harri', *arrabezuc* 6, 2.

ARRIMETU (a.) 'hurbildu'. *arrimecen* 4, 2.

ARTU (a.) 'izan'. *ezpalezaq[ue]* *artu* medizineric 3, 1; estuzu miñic *artuco* 2.

ASI (a.) 'hasiera eman'. *assiceíquo* 7, 2.

ASISTITU (a.) 'lagundu'. *asistizegule* 4, 1.

ASKI (ad.) 'erruz, ugari'. p[u]rgatuzue berac *asqui* 5, 1.

-AT (d.) 'bat'. desierotaera 1; desidchetuet (naiz) 6, 1.

ATRA (a.) 'atera'. *atraco* daquizquizu 2.

ATREBIMENTU (a.) 'ausardia'. *atrebim[e]ntu* 4, 1.

AU (d.) 'hau'. *augucian* 3, 2.

AUNKI (i.) 'zaunga'. chacurre bezela, ... *aunqueie* inzequela 4, 2.

AURRE (i.) ‘aitzin’. *aurre[an]* 6, 2; emendic *aurrera* 8.

## B

- 1 BA- (au.) ‘si’ lat./gazt. *bada* balego 3, 1; *ezpalezaq[ue]* 3, 1.
- 2 BA- (au.) ‘bai’. *badaquize* ‘scitis’ 5, 2.
- 1 BADA (j.) ‘zeren’ lat. ‘quia’. *bada t[e]ntatu* nindue 7, 2; *bara* (sic -r-) 5, 1.
- 2 BADA (j.) ‘beraz’. *ssaquincece* *bada* 8; *Bada* argatic 7, 1.
- BAGE (p.) ‘gabe, barik’. edan *bague* 1.
- BAI (ad.) ‘si’ gatz. *bai* egua da 5, 2.
- BAIT- (au.) Ik. NOLA eta ZEIN.
- BALORE (i.) ‘adore, kemen’. *valore* 5, 2.
- BAÑA (j.) ‘baina’. *baña* 1; *bañe* 4, 2; *beñe* 3, 2; *bene* 4, 2.
- BAÑO (j.) ‘baino’. bear *baño* gueago 1; *beño* 5, 1.
- BARIME ‘baldin ba’. *barime* zara 1; *ezparime* 7, 1.
- BARUTU (a.) ‘barau egin’. *barutu* ondoan 1.
- BAT (d.). balego *bat* gaizqui 3, 1; berze *batequi* 2; *vgaldebatean* 1; *batere* 5, 2.
- BAZUK (d.) ‘some’ ing. *arribezuc* 6, 2.
- BEAR IZAN (a.) ‘premia izan’. bear *baño* gueago 1.
- BEIZIK (j.) ‘baino’. *beicic* 1, 4, 2.
- BEKATORE (i.) ‘bekatari’. *becatorec* 4, 2; *vecatoreac* 7, 1.
- BEKATU (i.) ‘hoben’. *inzezan* *becatu* 1; *vecaturic* 7, 1.
- BEKELA (j.) ‘bezala’. *bequela* 5, 1; *bequela* (sic -cq-) 2. Ik. BEZELA.
- BERA (d.) Lat. ‘ipse; idem’. *berac* duela culpe, eta ez demonioac 4, 2; *beregui* 4, 2; moduartan *bere[an]* 6, 2.
- BERE (io.) Ing. ‘his, her, its’. *bere* 1; *berea iq[ue]nbague* 3, 2; *vere* 6, 1.
- BEREN (io.) Ing. ‘their’. *ber[en]* *becatu[en]* 4, 2.
- BERLA (ad.) ‘berehala’. *berla* 1.
- BERZE (d.) ‘bertze’. *berze* *batequi* 2.
- BERZELA (ad.) ‘bertzela, bestela’. eta *b[e]rcela* 6, 2.
- BERROGEI (d.). *berroguei* egunes 1.
- BETE (adj.) ‘full’ ing. *arrog[an]cies* *beteric* 3, 2.
- BETI (ad.) Lat. ‘semper’. *beti* 6, 2.
- BEZELA (j.) ‘bezala’. *bezela* 4, 2. Ik. BEKELA.
- BIDE (i.) ‘kamio, errepide’. *bideart[an]* 7, 2; *vide[an]* 7, 2.
- BIGARREN (d.). *bigarren* 3, 2.
- BILLETU (a.) ‘aztertu, bila aritu’. *billezeco* 4, 2.
- BIOZ (j.) ‘bihotz’, *viozac* 6, 2.
- 1 BIZI IZAN (a.) Lat. ‘vivo’. *esta...* *bici* 1; *bizide* 1; *vizizen cene[an]* 7, 2.
- 2 BIZI (i.) Lat. ‘vita’. *vere* *vicie* 7, 2.
- BORONDATE (i.) ‘nahi, gura’. bere *borondates* 4, 2; *vorondate* 7, 1.
- BULKEZON (i.) ‘bultzada’. *bulquezonemba* 6, 2.
- BURU (i.) Lat. ‘caput’. *egozizezu* ortic zaure *buruori* ‘temetipsum’ 2; bere *burue* ‘semitipsum’ 2; beren *buruec* 4, 2; zaure *burori* (sic -ro-) 6, 2.

## D

- DAUS (d.) ‘deus, ezer’. eszaquet *daus* ere eguin 6, 1.
- DEABRU (i.) ‘demonio’. *deabruec* 5, 2; *diabruec* 6, 1.
- DEMONIO (i.) ‘deabru’. *demonioac* 1.
- DENBORA (i.) ‘aldi’. *demborart[an]* 5, 1; eta an *d[e]mbora* labur galduzue... gracie 7, 2.
- DESISTITU (a.) ‘etsi, utzi’. *desistitu* 3, 2.

E

- EBEK (d.) ‘hauek’. *ebec* dire 3, 2; *ebec* gucioc 3, 2; *arriebec* 1. Ik. ABEK.
- EDAN (a.) Lat. ‘poto’. *ssan*, eta *edan* bague 1.
- EDO (j.) ‘nahiz’. *edo* 2.
- EGIE (i.) Lat. ‘veritas’. *Eguie* da 5, 1.
- EGIN/IN (a.) ‘zertu, burutu’. *eguin* 6, 1; *eguinharaci* 7, 1; *inaraci* 7, 1; *inzezan* 1; *itearequi* 3, 1.
- EGON (a.) ‘izan’. *egomela* 1; *egotea* 7, 2.
- EGOZI (a.) ‘bota, jaurtiki’. *egozizezu* ortic zaure buruori 2; *egost[en]* 6, 1.
- 1 EGUN (i.) Lat. ‘dies’. berroguei *egunes* 1; Egungo *egune[san]* 4, 2.
- 2 EGUN (ad.) ‘gaur’. *egungo* Evangelio s[a]nduen 1.
- EINGERU (i.) ‘aingeru’. *Eingueruec* 2.
- ELDU (a.) ‘etorri’. *elduze* ‘etorri zen’ 7, 2.
- ELIZA (i.) ‘jauretxe’. Jerusalengo *Elizabatean* 2.
- EMAN (a.) ‘eskaini’, lat. ‘do’. *emancio* ent[e]ndazera... ece 2; *eman[en]* 6, 2; *emein* 3, 2.
- EMEN (ad.) ‘hemen’. *em[en]* 4, 1; *emendic* aurrera 8.
- ENE (io.) ‘nere’. *ene* ofetara 3, 2.
- ENTENDATU (a.) ‘ulertu, aditu’. *emancio* ent[e]ndazera... ece 2.
- ERAKUSI (a.) ‘agertu’. *eracusi* zizquio 3, 2.
- ERAMO (a.) ‘eraman, eroan’. *eramo* zue 3, 2.
- ERE (ad.). *gorpuze ere* bai 1; *eszaquet* daus *ere* *eguin* 6, 1.
- ERRAN (a.) ‘esan’. *erran* 1; *erranen* 5, 2.
- ERREBES (i.) ‘zartako’. *em[an]cio* *errebesbat* 7, 2.
- ERREDENTORE (i.) ‘redemptor’. gure *erredemtoreac* 1; *Erredentoreari* 2; Red[em]to-re[ea] 6, 2.
- ERRGE (i.) Lat. ‘rex’. *Erregue* Espancoa 7, 2; *erregueren* [cor]tera 7, 2.
- ERREIÑU/ERRENU (i.) ‘erresuma’. *Erreiñuetaco* 3, 2; *Errenu* 3, 2.
- ERRESPONDATU (a.) ‘erantzun’. *erresp[o]ndatucio*, 2.
- ERREZEBITU (a.) ‘hartu, jaso’. *errecebitu* orduco 1.
- ERRI (i.) ‘herri’. *errichiqui* batetic 7, 2.
- ERTE (i.) ‘tarte’. *becatoren* *erte[an]* 4, 2.
- ESKATU (a.) ‘erregutu’. *ez escacea* Jangoicoari 3, 1.
- ESKEROS ‘-z geroz’. etorri *esqueros* 5, 1.
- ESKRITURA SAGRATU (i.). *escr[itur]a* *sagratuec* 2.
- ESKU (i.) Lat. ‘manus’. S[a]n Ju[an] Bautistaren *escutic* 1.
- ESPIRITU SANDUE (i.) ‘Spiritus Sanctus’. *Espiritu Sanduec* 5, 2; *Spiritu Sanduec* 1.
- ETA (j.). *eta* 1.
- ETORRI (a.) ‘heldu, jin’. *etorri* beño leen 5, 1.
- EZ (ad.). *ez escacea* 3, 1.
- 1 EZE (j.) ‘(konplet)’. *errat[e]ndigu...* ece 1; *ecce* (sic -cc-) 4, 2.
- 2 EZE (j.) ‘zeren’. *guezurrecion* *eze* ni naun demonioa 7, 2.
- 3 EZE (j.) ‘salbu’. *eszaq[ue]* *gareitu...* vstendiona *ece* b[e]rceric 6, 2.

G

- GABE (p.) ‘bage, barik’. artu *gabe* 2; indarric *gabe* 6, 1.
- GAISTO (adj.) ‘donge’. t[e]ntacio *gaistoa* 7, 1; t[e]ntacio *gueistuet[an]* 3, 2.
- GAIZ (i.) ‘gaitz, gaixotasun’. *gaizartatic* 3, 1.
- GAIZKI (adj.) ‘gaixo, eri’. balego bat *gaizqui* 3, 1.
- GALDEIN (a.) ‘galdetu, itaundu’. *galdeincio* 7, 2.
- GALDU (a.) ‘hondatu’. *galducozela* 7, 2; *galduco* incela 7, 2.
- GARAITU (a.) ‘gailendu, bentzutu’. *garaytuzue* 1; *gareitu* 6, 2.
- GARBITU (a.) ‘xahutu’. *garbizea* zeuren arimec 8.

- GASTE (adj.) ‘gazte’. nescato *gastebat* 7, 2.  
 GAU (i.) Lat. ‘nox’. berroguei *gaves* 1; eimberce *gaves* 1.  
 GAUROK (io.) ‘geurok’. (guc) *gaurogui* 4, 1; guc... *gauren* 5, 2.  
 GAUZA (i.) ‘zer, objektu’. *gauzabec* 3, 2; *gauze* 4, 2.  
 GEAGO (ad.) ‘gehiago’. bear baño *gueago* 1; Cer nauze *gueago* 6, 1.  
 GEIEN (adj.) ‘gehien’. Errenu guciec, edo *gueyenac* 3, 2.  
 GEIÑERAKO (adj.) ‘gainerako, beste’. *gueiñeraco* riqueza guciec 3, 2.  
 GELDITU (a.) ‘geratu’. *gueldiziedien*, 2.  
 GEZUR (i.) Lat. ‘mendacium’. *guezurrecion* 7, 2.  
 GIETU (a.) ‘gidatu’. *quietuzuela* 1.  
 GIZON (i.) Lat. ‘vir’. *Guizona*, edo Andrea 7, 1; *guizonarrec* 7, 2.  
 GOITI (adj.) ‘goi, gora’. lecu alto, edo *goitiartatic* 2.  
 GORPUZ (i.) ‘gorputz, soin’. *gorpuze* 1.  
 GOSE (i.) ‘jangura’. Cego... *goseac* 1; beizego... *gosseac* 1.  
 GU (io.) Lat. ‘nos’. *gu ere* 6, 2; *guc* 5, 2; *guri* 2; *gure* 1. Ik. GAUROK.  
 GUZI (d.) ‘guzti, oro, dena’. auguciau 3, 2; ebuc *gucioc* 3, 2; guri *guciogui* 2.

## I

- IAGO (ad.) ‘gehiago’. Esta... gauze comunegoric, eta *iago* vsecendenic, nola... 4, 2.  
 IKEN (a.) ‘izan’. lendabissicoa *iqueme* gulerequi 2: tentazioez ari da; *iquenenlizaque* 3, 1.  
 IKUSI (a.) ‘begietsi’. estuze *icusi* 7, 1.  
 INDAR (i.) ‘ahalmen’. *indarric* gave 6, 1; *inderric* 5, 1.  
 INTRES (i.) ‘ondasun’. vrrea, cillerra, eta b[e]rre *intresac* 3, 2.  
 IRU (d.) ‘hiru’. *iru* aldis 1.  
 IRUGARREN (d.) ‘hirugarren’. *irugarr[en]* 6, 2; *iruguerren* aldien ‘hirugarren aldiz’ 3, 2.  
 ITSUTASUN (i.) Lat. ‘caecitas’. *itsutasun* andibet 4, 2.  
 ITSUTU (a.). *itsuturic* 3, 2.  
 IZ (i.) ‘berba, hitz’. *izerequi* 1.

## J

- JABE (i.) ‘nagusi, ugazaba’. munduon[en] *Jabe* 3, 2.  
 JAINKO (i.) ‘Jainko, Jaungoiko’. *Jaincoa* 3, 1. Beste guzietan *Jangoiko*.  
 JANGOIKO (i.) ‘Jainko, Jaungoiko’. *Jangoicoa* 2; *Jan Goicoaren* 1.  
 JAUN (i.) Lat. ‘dominus’. *Jaun* eta Jangoicoa 2.  
 JENDE (i.) ‘pertsona’. *gendec* 2.  
 JESU KRISTO (i.) ‘Jesukristo’. *Jesu [Chris]to* 2.  
 JOAN (a.) ‘-ratu’. ez zuela cer *joan*, eze *joaten* baze 7, 2.

## K

- KARGU IN (a.) ‘agiraka egin’ (?). assiceiquio *cargu item*, cerengatic eszuen iñ arrec errana 7, 2.  
 KATE(A) (i.) Lat. ‘catena’. *catea* batequi 5, 1; *catebatequi* 4, 2.  
 KONBERTITU (a.) ‘bihurtu, bilakatu’. erranzazu arriebec *converti* deizela oguien 1.  
 KONPARATU (a.) ‘erkatu, berdindu’. *[com]paradeitequenic* 5, 1.  
 KRISTIO (i.) ‘kristau’. *christio* fielac 4, 2.

## L

- LABUR (adj.) ‘motz, murritz’. d[e]mbora *labur* ‘brevi tempore’ 7, 2.  
 LEKU (i.) ‘toki’. eramozue *lecu* altoatera 2.  
 LEN (ad.) ‘lehenago’. etorri beño *leen* 5, 1.

LENDABISIKO (d.) ‘lehenbiziko’. *lendabisicoa* (tentazioa) 2.

LOTU (a.) ‘estekatu’. catebatequi *loturic* dagona (sic -a) chacurre bezela 4, 2; catega bat equi *loturic* 5, 1.

M

MANATU (a.) ‘agindu’. Jangoicoac *manaturic* dauzquien becuela 2.

MANTENATU (a.) ‘mantendu’. *mantenatu* zuela bere arime... Jan goicoan... doctrinarequi 1.

MARIA SANTISIMA (i.) ‘Ama Birjina’. *Maria S[antissima]ri* 4, 1.

MEDIO (i.) ‘bitarte’. [con]fesio ombaten *medios* 8.

MIN (i.) ‘oinazte’. estuzu *miñic* artuco 2.

MODU (i.) ‘era, gisa’. *moduartan* bere[an] 6, 2.

MOISES (i.). *Moyses* 1.

MUNDU (i.) ‘lur’. *munduonequi* 3, 2; *munduco* Errenu guciec 3, 2.

N

NAI IZAN (a.) ‘gura izan’. Estute *nai* 4, 2; Cer *nauze...?* 6, 1; *neibauze* ‘nahi baduzue’ 6, 1.

NESKATO (i.) ‘neska’, *nescato* gastebat 7, 2.

NEURONEK (io.). *neuronec* err[an]nine (o andrea) 7, 2.

NI (io.). *ni* naun demonioa 7, 2; *nic* 6, 1. Ik. NEURONEK.

NOIZ (ad.). *noiz* err[an]zuzue...? 5, 1.

1 NOLA (ad.) ‘Aizeze *nola* [con]fesacenduen 5, 3; Cer nauze gueago... *nola* [con]fesacea demonioac...? ‘demonioak konfesatzea baino?’ 6, 1.

2 NOLA BAIT (j.) ‘zeren’. *nola* *beñego* [Chris]to... gosseac 1.

NOR (io.) Lat. ‘quis’. *norequi* igualatu 5, 1.

NORA (ad.). galdeincio... *nora* zidoyen 7, 2.

O

OBEKI (ad.) ‘hobeto’. an vere vicia *obequi* atraco zuelaco 7, 2.

OBERN (adj.) ‘hoberen’. prendaric *oberna* 7, 2.

OBRATU (a.) ‘ihardun, lehiatu’. *obrazaze* valore andiereq[ui] ‘viriliter agite’ 6, 2.

OGEI (d.) ‘hogei’. *ogei*, eta amargarr[en] 6, 2.

OGI (i.). *oguien* 1.

OIAN (i.) ‘mendi’. *oyan* alture anditecoatera (Tabor mendia da) 3, 2.

OIN (i.). ene *oñetara* 3, 2.

ON (adj.). [con]fesio *ombaten* 8.

ONDOAN (ad.) ‘eta gero, ondoren’. barutu *ondoan* 1.

ONEK (io.) ‘honek’. erresp[ue]sta *onequi* 1; tentaciont[an] 3, 2.

ONGI (ad.) ‘ondo’. *ongui* zequienac becuela 5, 1.

OR (ad.) ‘hor’. egoizezu *ortic* zaure buruori 2.

ORAIN (ad.). *ora[inj]* 5, 1.

ORDU (i.) ‘une, mementu’. errecebiku *orduco* ‘bezain laster’ 1.

ORDUEN (ad.) Lat. ‘tunc’. *orduen...* em[an]cio errebesbat 7, 2.

ORE (io.) ‘hura’. Guizonore 7, 2; nescatoore 7, 2.

ORGATIK (ad.) ‘horregatik, hala eta guztiz ere’. beñe *organic* eszue desistitu 3, 2.

ORI (io.) ‘hori’. zaure buruori 2.

ORLA (ad.) ‘horrela’. ni *orla* egotea 7, 2.

OZKA (i.) “horzka, ausiki”. ezzaqueula *ozcaric* in 4, 2.

## P

PARATU (a.) ‘ipini, jarri’. paratu [con]sideracioan 4, 2.

PELEATU (a.) ‘borrokatu’. *peleazaiste* 5, 3.

PODORE (i.) ‘indar, ahalmen’. estela mundu[en] *podoreric*, eta inderric 5, 1; fuerzaric, eta *podoreric* 5, 1.

## S

SANDU (adj.) ‘saindu, santu’. Evangelio *s[a]nduen* 1; *s[a]ndu* glorioso 6, 1.

SEME (i.). *semea* 1.

SERBIZETU (a.) ‘zerbitu’. Jangoicoa sollic *serbizetuco* duc 4, 1.

SOLLIK (ad.) ‘bakarrik’. Ik. SERBIZETU.

## TX

TXAKUR (i.) ‘zakur’, *chacurre* 4, 2. Ik. LOTU.

TXEITXI (a.) ‘jaitsi, jatsi, jeitsi’. *cheisteco* lecu alto, edo goitiartatic 2; *cheisten* bazara ene oñetara 3, 2.

TXIKI (adj.) ‘txipi, txiker’. *errichiqui* batetic 7, 2.

TXOIL (ad.) ‘txit, oso’. astucie dela *choil* andie 5, 1.

## U

UGALDE (i.) ‘ibai’. Jordan cerizor *vgaldebatean* 1.

URRE (i.) Lat. ‘aurum’. *vrrea*, cillerra 3, 2; *vrre*, ciller 3, 2.

USTE IZAN (a.) ‘pentsatu’. cer *vste* duze...? 2.

UZI (a.) ‘utzi, laga’. *vzininduela* 6, 1; *vst[e]ndiona* 6, 2.

## X

XAKIN (a.) ‘jakin’, *ssaquncece* 8.

XAN (a.) ‘jan’, *ssan*, eta edan 1; *ssancezan* 1.

XARRI (a.) ‘ipini, paratu’. *ssarrizem* (sic -m) baze arr[en] oñet[an] 6, 2.

## Z

ZAURE (io.) Ik. ZEURE.

ZAUREN (io.) IK. ZEUREN.

ZAUROK (io.) ‘zeurok’. *ssaquncece...* *zauroc* duzela 8.

ZEIN BEIT (io.) Erreiñueietaco glorie gucie, cein beitire vrre, ciller, eta... 3, 2.

ZER (io.) Lat. ‘quid’. cer *vste* duze...? 2; *certara* 5, 2; *cetaco* 5, 2.

ZERENGATIK (j.) ‘zergatik, zeren’. *cerengatic* atraco daquizquizu 2; *cerengatic* eszuen iñ 7, 2.

ZERGATIK (j.) ‘zerengatik’. *cergatic...* esce 3, 2; *cergatic t[e]ntazengaytu* 6, 2.

ZEURE (io.). (zuc) *ceure...* medios 7, 1; (zuc) *zaure* buruori 2.

ZEUREN (io.). (zuec) *zeuren* arimec 8; *zauroc...* *zaur[en]* 8.

ZILLER (i.) ‘zilar’. *vrre*, *ciller* 3, 3; *vrrea*, *cillerra* 3, 2.

ZUEN (io.). *zuen* Erred[e]ntoreac 6, 1.

ADIZKITEGIA

B

BALEGO ‘balego’, *balego* 3, 1.  
 BAUZE. Ik. DUZE.  
 BEAIRZET. Ik. DIZET.  
 BEAURK. Ik. DUK.  
 BEINZE ‘bahintz’. joaten *beinze* galduco incela 7, 2.

D

DA ‘da’. *da* 3, 1; *denic* 4, 2.  
 DADIEN ‘dadin’. *dadiela* 6, 1.  
 DAGO ‘dago’. *dago* 5, 1; *dagona* 4, 2.  
 DAKIZE ‘dakizue’. *daquize* 5, 2.  
 DAKIZKIGU ‘zaizkigu’. *daquizquigun* 4, 1.  
 DAKIZKIO ‘zaizkio’. *daquizquionac* 4, 1.  
 DAKIZKIZU ‘zaizkizu’. *daquizquizu* 2.  
 DARIZO ‘deritzo’. Valladolid *darizon* ciudad[e] 7, 2.  
 DAUDE ‘daude’. *daudenen* 3, 2.  
 DAUKE ‘dauka’. *estauq[ue]* 5, 2.  
 DAUKETE ‘daukate’. *estauq[ue]te* 6, 1.  
 DAUKEZU ‘daukazu’. *dauquezu* 3, 2.  
 DAUZKI ‘dauzka’. *dauzquien* becquela 2.  
 DAUZKIZU ‘dauzkazu’. *dauzquizu* 3, 2.  
 DEITEKE ‘daiteke’. [com]para *deitequenic* 5, 1.  
 DEIZEN ‘daitezen’. converti *deizela* 1.  
 DIGU ‘digu’. *digu* 1; *digune* 4, 1.  
 1 DIO ‘dio’. vst[e]ndiona 6, 2.  
 2 DIO ‘dio’. *dio* ‘esaten du’ 4, 2.  
 DION ‘esaten dun’. *guezurre* *dion* 7, 2.  
 DIRE ‘dira’. *dire* 3, 2.  
 DIZET ‘dizuet’. *beairzet* ‘behar dizuet’ 4, 2.  
 DIZKIOTE ‘dizkiote’. *dizquiotela* 6, 1.  
 DIZKIOZE ‘dizkiozue’. *dizquoze* 8.  
 DIZKIZUT ‘dizkizut’. *dizquizut* 3, 2.  
 DU ‘du’. *du* 6, 1; *duenac* 4, 2.  
 DUK ‘duk’. *duc* 4, 1; *beaurc* ‘behar duk’ 6, 1.  
 DUTE ‘dute’. *Estute* 4, 2.  
 DUZE ‘duzue’. *duze* 2; *neibauze* ‘nahi baduzue’ 6, 1; *nauze* ‘nahi duzue’ 6, 1; *duzela* 8.  
 DUZU ‘duzu’. *estuzu* 7, 1; *estucu* (sic -cu). 2.

G-I

GAITU ‘gaitu. *gaytu* 6, 2.  
 GENZAGEN ‘genezan’. garaitu *guenzaguenagatic...*, eta logratu *guenzaguenagatic* 5, 2.  
 GOIE ‘hoa’. *Goye* nora mala Satanás 4, 1.

L-N-T-U

LEZAKE ‘lezake’. *balezaq[ue]* 3, 1.  
 LIZAKE ‘litzateke’. *lizaque* 3, 1; mundu gucion Jabe *lizequen* bezela ‘balitz bezala’ 5, 1.  
 NAIZ ‘naiz’. *naiz* 6, 1.

- NAUN 'naun'. ni *naun* 7, 2.  
 NAZU 'nauzu'. *banazu* 3, 2.  
 NAZAKEZE 'nazakezue'. *nazaq[ue]ze* 6, 1.  
 NINDUE 'ninduen'. *nindue* 7, 2.  
 NINE 'nian, nan'. *nine* 7, 2.  
 TUGU 'ditugu'. *beartugule* 4, 1.  
 UE 'huen'. *ezzuela cer joan* 7, 2.

## Z

- 1 ZAGUN 'dezagun'. *discurrizegun* 6, 2; *icuscegun* 6, 2.  
 2 ZAGUN 'diezagun'. *asistizegule* 4, 1.  
 ZAISTE 'zaitezte'. *zaiste* 5, 2; *animezeiste* 5, 2.  
 ZAKE 'dezake'. *eszaq[ue]* *gareitu* 6, 2; *aconsejatuceq[ue]* 6, 2.  
 ZAKET 'dezaket'. *eszaquet* 6, 1.  
 ZAKEZE 'dezakezue'. *zaqueze* 4, 2.  
 ZARA 'zara'. *zara* 6, 2; *zarela* 7, 1.  
 ZAZE 'ezazue'. *obrazaze* 6, 2; *procurazaze* 8; *ssauincece* 8.  
 ZAZKIGU 'ditzakegu'. *erremedietu alzazquigune[an]* 3, 1.  
 ZAZKIZE 'itzazue'. [con]fortazazquize 6, 2.  
 ZAZU 'ezazu'. *erranzazu* 1; *egoizezu* 2.  
 ZE 'zen'. *ze* 2; *esce* 3, 2.  
 ZEBILLE 'zebilen'. *cebille* 5, 1.  
 ZEDIEN 'zedin'. *gueldizedien* 2; *desbanecitu zedienagatic*, *edo ensoberbecitu zedienagatic* 2.  
 ZEGO 'zegoen'. *Cego* 1.  
 ZEIKIO 'zitzaion'. *ceiquio* 1.  
 ZEIO 'zaio'. *zeyonari* 4, 2.  
 ZEISTET 'zaituztet'. *zeistet* 4, 2.  
 ZEITUSTE 'zaituzte'. *zeituste* 2.  
 ZEIZKIO 'zizkion'. *ceizquiola* 5, 2. Ik. ZIZKIO.  
 ZEKIE 'zekien'. *zequienac* 5, 1.  
 ZERIZO 'zeritzon'. *Jordan cerizone* *vgaldebatean* 1.  
 ZEZAN 'zezan'. t[e]ntacezan 1; *egoizezan* 2.  
 ZEZATEN 'zezaten'. *alaba zezaten* 2.  
 ZIDOIE 'zihoan'. *cidoie* 7, 2.  
 ZIO 'zion'. err[an]cio 2; *ciola* 1.  
 ZIRUDIE 'zirudien'. *Guizona cirudielacoarrec* 7, 2.  
 ZIZEN '?'. egost[e]ncicen dizquiotela 6, 1. Ik. 29. *oharra*.  
 ZIZKIO 'zizkion'. *zizquio* 3, 2; *zicquio* (sic -c) 6, 2.  
 ZOGUN 'diezaigun'. *escazogun* 4, 1.  
 ZOIZKIE 'zeuzkan'. *zoizquierlaric* 2.  
 ZOKE 'diezaioke'. *eguinarcizoque* 7, 1.  
 ZUE 'zuen'. *zue* 1; *zuela* 1; *eramozu* (sic *zu*) 2; *erranzum* (sic *-m*) *bequela* 5, 1.  
 ZUTE 'zuten'. *zuten* 2.

## LABURPENA

Euskal testu bat ematen dugu ezagutzera. Aldizkari honetan argitaratu ditugun beste zenbaitekin bilduma bat osatzen du. Goi-Nafarroako Goñerrin katurik dagoen Munarritz herrian izan ziren denak aurkituak orain dela hi-

rurogeita hamalau bat urte eta bilduma horretan 8. saila osatzen du. XVIII. mendeko erdi aldekoa izan daiteke.

Laburki azaltzen dugu eskuidatzia eta ukitzen dugu zenbait puntu, noiz, non, eta nork izan zen egina ikasteko, eta nolako ta nongo euskara darabilen. Goi-Nafarroako euskara erabiltzen duela baiezatzzen dugu.

## RESUMEN

Se da a conocer un nuevo texto hallado en el valle alto-navarro de Goñi. Forma parte de la colección de documentos en vascuence encontrados en el pueblo de Munarriz hace unos setenta y cuatro años, y creemos que fue redactado en el siglo XVIII.

Describimos el manuscrito y tratamos algunos puntos referentes a la fecha, el lugar y el autor del mismo, y exponemos algunos aspectos lingüísticos, para concluir que se trata del vascuence de Alta-Navarra.

## RÉSUMÉ

Un nouveau texte a été mis à notre connaissance, trouvé dans la vallée de Goñi, en Haute-Navarre. Il fait partie de la collection de documents en langue basque trouvés dans le village de Munarritz il y a soixante-quatre ans, et à propos duquel nous pensons qu'il fut rédigé au XVIII<sup>e</sup> siècle.

Nous décrivons le manuscrit et nous traitons quelques points se référant à la date, le lieu et l'auteur de celui-ci, et nous exposons quelques aspects linguistiques, pour conclure sur le fait qu'il s'agit de la langue basque de Haute-Navarre.

## SUMMARY

We publish a new document in the Basque language. It belongs to a collection composed of many texts written in the 18th and 19th centuries. The collection was found about 74 years ago in Munarritz, a village situated in the High-Navarrese valley called Goñerri/Valdegoñi.

In a brief introduction we describe the manuscript and attempt to know the date it was written at and its author. We offer some language facts and we conclude that it is composed in a Basque variety spoken in High-Navarre.

Domingo primero de auaracera. Ewang. Matth.  
 tunc ducou e Jesus a esnialou in deseroy,  
 ia traceta a diabolo. Matth. 4.  
 - Evangile n. Matheoc erradigui egungo Euren  
 gelio Induen, ce Iesu Xipio gure Erradim  
 tunc exreubitu ordies bautismo exdusit?  
 Un? Bautizatu esutore Jordan legiori Ugt  
 as batzeari berta gurutxeta. Pinion Andre  
 desinestera, tracetan arr demoniaci  
 tentatu ne bata demoscac. Ipro gure ex  
 redimentoza zu adit. Cego Ipro gure ex  
 redimentoza, berroquei egunes, eta berroquei  
 gaves batzeari oidoan goscac, desetox art  
 etad aparezion cegun demoniac, eta tra  
 mire arregein erradimista. Si filius Dei es  
 die ut apide in panes frant. Van Gorcoaren  
 venia batzeari zara, etan zara aniluze jom  
 voitaderratagunen harre demoniac, notia  
 berroque Ipro gure Erradimentoza, bimba eguna  
 eta gaves batzeari oidoan goscac. Bixxean bax  
 bano queag, eta mizeran becaud; bana garm  
 turne demoniac gmo gure Erradimentoza exre  
 tura onegun. Non in vero pane vivit nos; eta  
 guriond zemenegun edibitzci. Dim o verbo  
 ad procede de ote Dei. berrie Van Gorcoaren  
 izeregin eta docontrazgu bizi de astun, eta  
 amazaldis goiztze ere bar, bida Ota Indien  
 erradigui, Moyster leoncisa. berroquei egun  
 sari, eta edam gagues eta mizeran zeta  
 bere armine; eta goiztze ere bar van gozo  
 arri neregin, eta docontrazgu. Garaziaue